IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

# 2. HE

| | |
|---|---|
| 1. ABIZENA | NAN zk. |
| 2. ABIZENA | AZTERKETA EGUNA |
| IZENA | AZTERKETA TOKIA |

Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**1. Ebakuntza egin zidatenetik gero eta .................... mugitzen dut ezkerreko besoa.**

a) hobe
b) ondoen
c) ondo
d) hobeto

**2.- Aditu-talde batek adierazi duenez, sendabelarrak erabiliko ............. osasun-arazo gutxiago izango .................**

a) balitu / ginateke
b) balute / lieke
c) bagenitu / genuke
d) bagenu / genituzke

**3.- Ez dut inor iraintzeko asmoz esan, baina uste dut gehienek .............. dutela.**

a) aitaren batean egin
b) txartzat hartu
c) seko gelditu
d) hankaz gora jarri

**4.- Sarritan eztabaida eragiten duen gaia ez da izaten pentsatzen dugun ........... garrantzitsua.**

a) hainbeste
b) hain
c) bezain
d) adina

**5.- Ikastaroaren ................ hamabost eguneko epean adierazitako kontu korrontean egingo da.**

a) azalpena
b) ordainketa
c) gorakada
d) lehiaketa

**6.- Zein da OKERRA?**

a) Erabil ezazu arkatz hori!
b) Jar itzazu gutunak mahai gainean!
c) Goaz antzerkia ikustera!
d) Eraman dezala nahi duena!

**7.- Zein da ZUZENA?**

a) Muskizean, 2004ko urtarrila 5an.
b) Muskiz, 2004aren urtarril 5ean.
c) Muskizeko 2004a urtarrileko 5an.
d) Muskizen, 2004ko urtarrilaren 5ean.

**8.- Zein da ZUZENA?**

a) Zer eguraldia egingo du datorren asteburuan?
b) Idazle horrek gaur eguneko bertsolaritzari buruzko liburu batzuk idatzi ditu.
c) Ehun pertson sar daitezke udalak eraiki duen ikuskizunetarako areto berrian.
d) Urte osoan ugari jaiak ospatzen ditugu gure auzoan.

**9.- Zein erabiliko zenuke alkateari zuzendutako eskutitzean?**

a) Nagusia hori, agur t'erdi:
b) Jaun/andre agurtua:
c) Jauna/andrea:
d) Nagusi agurgarria hori:

**10.- Ikastaroaren antolatzaileen arabera, ordutegiak aldaketak izan ..............**

a) dezake.
b) litezke.
c) diezaioke.
d) litzake.

**11.- Udaberrian eguzkiaren izpiek mendien gailurretan dagoen elurra ........... egiten dute.**

a) lehortu
b) erre
c) urtu
d) usteldu

**12.- Zientzialarien esanetan Messel lakuko animaliak pozoitutako ura ................ hil ziren.**

a) edateagatik
b) edan arren
c) edan ordez
d) edan ez ezik

**13.- Ikasketak utzi eta diru apur bat irabazteko eraikuntzan .................. erabaki zuen.**

a) lan egin
b) lan egiteari
c) lan egiteko
d) lan egitea

**14.- ...................... dira eta komeni zaigu trenerantz abiatzea, geltokiraino bide luzea dugu eta.**

a) Bostetan laurden gutxitan
b) Bostak laurden gutxi
c) Bosta laurden gutxiak
d) Bostak laurden gutxiz

**15.- Zein da ZUZENA?**

a) Eztabaida luzea izan da baina azkenean ados jarri dugu.
b) Sukaldari ospetsuek merkatuko produkturik onenak erosten saiatzen dute.
c) Udako oporraldian leku exotiko batera joan dezakezu, Japoniara adibidez.
d) Telebistako gaueko saio berriak ikus-entzule asko izan du.

**16.- Italiako ikerlari batzuk gizaki bakoitza zenbat urte biziko den zehazten duen ......... bila ari dira.**

a) genearen
b) geneak
c) geneari
d) geneek

**17.- XXI. mendeko herri handiek eta hiriek antz handia dute ................ artean.**

a) elkarri
b) elkar
c) elkarren
d) elkarrentzat

**18.- Langile guztiok .............. gaude datorren hilean nagusi berria etorriko zaigula.**

a) jakinaren gainean
b) sasoian
c) geure onetik aterata
d) bete-beteta

**19.- Egun, batez ere kontsumo-ohitura berrien eraginez, lehen baino ............. gehiago sortzen dugu.**

a) zauri
b) zabor
c) oztopo
d) kide

**20.- Beste lantegi batean diru gehiago ................., leku berean jarraitu zuen lanean.**

a) eskaini baitzioten
b) eskaini bazioten ere
c) eskaini zioten bezala
d) eskaini ziotenez

**21.- Ameriketako Estau Batuetako zinema-kritikariek Amenabarrek egindako azken filmari ikusgarria eta hunkigarria ......................**

a) dagozkie.
b) diote.
c) dirudite.
d) deritzote.

**22.- Herrietako artisautza-azoketan garai bateko ................. saltzen dituzte.**
- a) jostailuak zurezkoak
- b) zurezko jostailuak
- c) zurez jostailuak
- d) jostailuak zurez

**23.- ............. dutenei medikuarengana joatea komeni zaie argaltzeko.**
- a) Gehiegi pisu
- b) Pisu gehiegizko
- c) Gehiegizko pisua
- d) Pisuz gehiegi

**24.- Kultur etxean dagoen argazki-erakusketa ikusi nahi baduzu, ordaindu egin behar duzu, .........., ez dizute sartzen utziko.**
- a) bestela
- b) ordea
- c) beraz
- d) orduan

**25.- Zein da ZUZENA?**
- a) Jendeak badakizki ordenagailuak behar den moduan erabiltzen.
- b) Munduko mendirik garaienetara igotzea lortu dituzte euskal mendizaleek.
- c) Bikiak izango dituela jakiteak kezkatu dute.
- d) Arrautzak eta irina erosi behar dituzu opila egin nahi baduzu.

**26.- Droga-mota guztiek kalte egiten digute: ................, gaur eguneko droga sintetikoak dira txarrenak.**
- a) hala ere
- b) ere bai
- c) ala
- d) baizik

**27.- Zein da ZUZENA?**
- a) Zinemak gure arazoak ahazten laguntzen digu.
- b) Normalean lanetik ordu bietan irten naiz.
- c) Aspaldiko bidaia batean ezagutzen nuen nire senarra.
- d) Ezin dugu horrela jarraitzen, beti ari gara elkar iraintzen.

**28.- Indiak ................ natural asko du, baina pobrezia handia ere badu.**
- a) aurkibide
- b) ikuspegi
- c) baliabide
- d) joko

29.- **Institutuko ikasleei eskuko telefonoz mezuak .............. asko gustatzen zaie.**

a) bidaltzen
b) bidali
c) bidaltzea
d) bidaltzera

30.- **Gaztetan ........... zaintzen ez badugu, zahartzaroan osasun-arazo larriak izango ditugu.**

a) geure burua
b) geure buruarekin
c) geure buruaz
d) geure buruarentzat

31.- **................ konfiantza duzu lankideengan proiektu hori aurrera ateratzeko?**

a) Norainoko
b) Norentzat
c) Nori
d) Nondik

32.- **Dirudienez, oraindik ez da malariaren aurkako lehenengo txertoa merkaturatuko, baina duela gutxi pauso handi bat eman da. Zein da esaldi horren PAREKOA?**

a) Malariaren aurkako txertoak pauso handia eman du, duela gutxi merkaturatu da eta.
b) Oraindik malariaren aurkako txertoa ez da merkaturatu, zeren guztiz ezezaguna baita, ez da aurrerapenik ere egin.
c) Esaten denez, malariaren aurka hainbat txerto merkaturatu da eta hemendik aurrera ere aurrerapen handiak egingo dira.
d) Nahiz eta oraindik malariaren aurkako txertoa merkaturatu ez, aurrerapen handia egin da.

33.- ***"Etxeko taldea beti aurrera"*** **............. kartel handi-handi bat .............. futbol-zelaiaren alde batean.**

a) zihoan / zioten
b) zegoen / zekiten
c) zioen / zegoen
d) zekarren / zebilen

34.- **Tontorrera igotzeko falta .............. azken metroak inolako eragozpenik gabe igo .................**

a) zitzaien / zituen
b) zitzaizkien / zituzten
c) ziren / zitzaizkion
d) zitzaizkion / zuen

.

**35.- Egun ditugun teknologia berriei esker, datozen lau egunetan mendian eguraldi ona egingo .................. jakiteko aukera dugu.**

a) duen
b) badu
c) duenik
d) du

**36.- Geltokian jende asko ikus zitekeen oporraldia kanpoan pasatzeko asmoz ............ zain.**

a) trenak
b) trenarentzat
c) trena
d) trenaren

**37.- Itxaron dezatela ate ondoko gela horretan azterketa medikoa egiteko eskatu ...............**

a) dutenek.
b) dutenak.
c) duenak.
d) duena.

**38.- Kiroldegia eraikitzeko proiektuaren bigarren fasea datorren hilean hasiko da eta milioi eta erdi euroko ................. izango du.**

a) zeregina
b) sailkapena
c) helburua
d) aurrekontua

**39.- Idazkariak atzerriko bezeroekin genuen bilerara berandu iritsiko ginela ohartarazi ...............**

a) zitzaigun.
b) gintuen.
c) zigun.
d) zenigun.

**40.- ............... besteek baino pisu gutxiago izaten dute.**

a) Animalia argalenak izanda ere
b) Garaia baino lehen jaiotako haurrek
c) Zenbaitek mirari hitza erabiltzen badute
d) Umea amaren umetokian dago eta

**41.- Toki guztietan egon nahi duena ez dela inora heltzen esan ......... da.**

a) ote
b) omen
c) ohi
d) al

**42.- Ezagutzen ditugu tratu txarren salaketa egin behar izan ................ gurasoak.**

a) dute
b) duten
c) dutela
d) dutenik

**43.- Euskal Herrian ospetsu egin den Kickboxing-a antzinako kirola da eta Thailandian du ..........**

a) jatorria.
b) ataria.
c) giroa.
d) neurria.

**44.- Europar Batasuneko araudiak urteetan hainbat bazterretan ikusi ditugun auto zaharren biltegiak debekatzen ditu. Zein da esaldi horren PAREKOA?**

a) Europar Batasuneko araudiak urteetan debekatu ditu hainbat bazterretan auto zaharren biltegiak.
b) Europar Batasuneko araudiak urte askotan ikusi ditugun auto zaharren biltegiak debekatu egiten ditu.
c) Urteetan debekatu dira Europar Batasuneko auto zaharren biltegietako araudiak.
d) Orain arte ikusi ez ditugun auto zaharren biltegiak Europar Batasuneko araudiak onartu egiten ditu.

**45.- Tabakismoaren Prebentziorako Batzordeko presidentearen ustez, .............**

a) tabakoaren industriaren publizitate-kanpainak gazteei zuzendurik daudela.
b) erretzaile pasiboa ere ez denik ahaztu behar.
c) multinazional handiek erakusten diguten tabakoaren irudi positiboa.
d) erretzaile-kopurua behera doa apurka-apurka.

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | D | 2 | C | 3 | B | 4 | C | 5 | B |
| 6 | C | 7 | D | 8 | B | 9 | C | 10 | D |
| 11 | C | 12 | A | 13 | D | 14 | B | 15 | D |
| 16 | A | 17 | C | 18 | A | 19 | B | 20 | B |
| 21 | D | 22 | B | 23 | C | 24 | A | 25 | D |
| 26 | A | 27 | A | 28 | C | 29 | C | 30 | A |
| 31 | A | 32 | D | 33 | C | 34 | B | 35 | A |
| 36 | D | 37 | A | 38 | D | 39 | B | 40 | B |
| 41 | C | 42 | B | 43 | A | 44 | B | 45 | D |